

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar legebiltzar-taldeko **Dani Maeztu Perezek**, indarrean den araudiaren babesean, ondoko **interpelazioa** aurkezten dio **Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburu Iñaki Arriolari**, azkenaldian bere sailak adierazi duen Eusko Trenbide Sarearen egoitza Durangon jartzearen inguruan hasi duen “gogoetaren” inguruan azalpenak eman ditzan.

### **ZIOA:**

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak Aralar legebiltzar-taldeari irailaren 1ean igorritako informazioaren arabera, “egoera ekonomiko zaila” dela eta, “Euskal Trenbide Sarearen egoitza nagusia Durangon kokatzeko aukerari buruz “gogoeta” egiten ari dela jakinarazi zion.

Bestalde, Durangoko Udalak jakinarazi duenez, eta komunikabideek hala argitaratu dutenez, Eusko Jaurlaritza udalarekin harremanetan jarri da hurrengo jakinarazteko: “baliteke aurrean aipatu egitasmoa, Euskal Trenbide Sarearen egoitza nagusiaren eraikuntza, alegia, bertan behera geratzea”.

Durangon trena lurperatzea eta egitasmo horretan jasotzen diren proiektuaren beste atalak oso garrantzitsutzat dira Durangoko herriarentzat. Horregatik, hurrengo interpelazioa egiten dio Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuari.

### **INTERPELAZIOA:**

- Egia da Durangon Eusko Trenbide Sarearen egoitza nagusiaren proiektua ez dela Durangon egingo, egoera ekonomiko zailagatik? Ala, beste kokapenen bat aztertzen ari da Jaurlaritza? Hala bada, Durangon ez egiteko erabakia hartu badu Jaurlaritzak, egitasmo horrek jasotzen dituen ze beste proiektu jartzen ditu zalantzan Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailak eta nola eragingo diote hasierako proiektuari?

**Gasteizen, 2009ko irailaren 28an**

**Dani Maeztu Perez**



Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkidea